

ERRIGORAREN ESKUTIK

SORTU DA AGERRALDIA TALDEA

Talde sortu berriak Nafarroako erdialdean eta hegoaldean eragin nahi du. Errigora egitasmoaren harreman sarea eta diru iturria baliatuko ditu euskararen ezagutza, erabilera eta euskararen aldeko jarrerak bultzatzeko.

 ONINTZA IRURETA AZKUNE  IDOIA ZABALET A / FOKU

Errigora elkarteak elikadura burujabetza eta euskara lotzen ditu. Nafarroako hainbat elikagai saltzen ditu eta euskararen inguruan lanean ari diren eragileentzat dirua jasotzen du. Elkarteak bazuen kezka bat: euskararen aldeko Euskarari Puzka kanpaina bertan behera geratuko balitz zer geldituko litzateke Nafarroako erdialdean eta hegoaldean?

Hala, euskarara bideratutako taldea sortzea erabaki dute eta duela oso gutxi abian da. Euskaltzaleak eta euskaldunak bildu dira, asko euskaltegiak eta ikastola inguruko nafarrak. Hasi dira lanean, eta hainbat herritan Agerraldia taldea aurkeztu dute. Taldearen berri ematez gain, haien herrian euskara bultzatzeko zein behar dituzten gogoetatzeko eta aztertzeko eskatu diete. Haizea Lizarbe tafallarra Agerraldiako partaideetako bat da eta berak azaldu digu mota askotako eskaerak espero dituztela. Herri batek euskararen aldeko lasterketa prestatu nahi izango du; beste batek formazio ikastaroa eskatuko du. Herriaren neurria gaintitu eta geografia zabalagoan antolatzeak ere izan daitezke. Esate baterako, UEUren udako ikastaro bat presta dezakete Tuteran. Herri mailako gauza txikiak eta geografia zabalagoko gauza handiak. Izan ere, Errigora baliabide ekonomikoak bideratzeaz gain, sare zabala osatzen du Nafarroatik kanpora eta urte hauetan garatutako harreman sarea baliatu nahi dute Agerraldiakoek. Azaroan berriz joango dira herrietara, propo-



Agerraldia taldearen aurkezpena urriaren 13an egin zuten Tafallan. Errigora udazkeneko 'Euskarari puzka' kanpainako saskiak salgai jarri zituen. Aurki hasiko da kanpaina.

samenak jasoko dituzte, beharrak antzemango dituzte, eta asmoa da 2020rako agenda moduko bat prestatzea.

Edozein alorretako ekarpenak jasotzeko prest dago taldea, izan kirol arlokoak, eremu sozioekonomikokoak, kulturakoak, aisialdikoak, erakunde publikoei eragiten dietenak...

Orain arte Errigora baliabide ekonomikoak AEKren, Ikastolen Elkarte-

ren eta Sortzenen eskura jarri ditu. Hiru eragileak ez dira zuzenean Agerraldiako partaide, baina lankidetzaz estua izango dute. Hemendik aurrera Errigora bidez lortutako dirua bi norabidetan banatuko da, batetik, orain arte bezala AEK-k Ikastolen Elkarteak eta Sortzenek jasoko dute, eta bestetik, Agerraldia taldeak jasoko du herrietako eskaerei erantzun ahal izateko. ●